



31/2003 GOMENDIOA, AZAROAREN 10EKOA, BARAKALDOKO UDALARI EGINA, PROZEDURAN BEHAR BEZALAKO BERMEAK GORDE BARIK AGINDU ZUEN ZIGOR BAT BALIORIK GABE UTZ DEZAN.

Aurrekariak

1. 2002ko abenduan, kexagileak erakunde honetara jo zuen, gure esku-hartzea eskatzeko. Izan ere, Barakaldoko Udalak zigor bat ipini zion bere semeari, (...) zenbakiko zigor-prozeduran, otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak - Herritarren Segurtasuna Babestekoak- 25. artikuluan ezarritako xedapenetako bat urratzeagatik.
2. Kexagilearen esanean, zigorra sortarazi zuten egintzez berak kontatu zuen bertsioa egiaztatzeko, zenbait froga egitea proposatu zuen, baina udalak ezezkoa eman zion, ez zituela beharrezkotzat jotzen beste arrazoirik eman gabe.
3. Barakaldoko Udalak honela erantzun zion guk kexa ebazteko egin genion informazio-eskaerari:

*"El expediente Sancionador (...) se incoó contra D. (...) con fecha 4 de junio de 2002, como consecuencia de la Actuación Policial desarrollada con fecha 12 de noviembre de 2001. Por lo tanto, se parte de la existencia de una **denuncia policial**, esto es, de una Actuación de los Agentes de la Autoridad en el cumplimiento de sus funciones del mantenimiento del orden público y de la seguridad ciudadana.*

*Iniciado dicho Expediente Sancionador el interesado, dentro del plazo legal oportuno, presentó escrito de alegaciones en el que además de dar una **versión completamente diferente** a los hechos denunciados por la Policía Municipal de Barakaldo, solicitaba como medios de prueba la testifical de D. (...), alegando que esta persona se encontraba en compañía del interesado cuando ocurrieron los hechos denunciados y el Careo entre los Agentes de la Policía Municipal y el propio interesado. Se denegó la prueba testifical planteada por el interesado al considerarla innecesaria ante la actitud obstaculizadora mostrada por el mismo durante el procedimiento dada la versión que ofreció y las Diligencias Policiales levantadas al efecto. El interesado solicitaba la prueba testifical de una persona que supuestamente se encontraba en su compañía en el día de los hechos, cuando en las propias Diligencias Policiales*



(Folio nº 1), las cuales están revestidas tal y como señala la propia Ley y la Jurisprudencia de veracidad, el interesado al observar la presencia policial él sólo salió corriendo siendo perseguido por los Agentes de la Autoridad y dando lugar a la realización de las referidas Diligencias Policiales. Ante la actuación obstaculizadora del propio interesado, y lo demás señalado, se estimó oportuno proceder a la inadmisión del testimonio de la persona señalada por el interesado por considerarlo de conformidad con el artículo 80.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, y a la admisión de la prueba testifical de los Agentes Policiales para tal y como señala el artículo 37 de la Ley 1/1992, de 21 de febrero, de Protección de la Seguridad Ciudadana, ante la versión ofrecida por D. (...) pudiera manifestarse al respecto y en su caso, ratificarse, como así ocurrió continuándose con la tramitación legal del procedimiento". (sic)

Halaber, zigor-prozedurari zegokion administrazio-espedientearen kopia bat bidali zigun udalak.

4. Administrazio-espediente horretan honako egintzak azaltzen ziren:
5.
 - Prozeduraren une egokian, testiguen froga egin zedin eskatu zuen interesdunak, prozedura hasiarazi zuten egintzak gertatu zirenean berarekin zegoen -horixe dio kexagileak- pertsonaren bitartez. Orobat, bekaldura edo aurrez aurreko galdeketa eskatu zuen testigu haren eta egintzetan parte hartutako udaltzainen artean, baita udaltzainen eta bere artean ere.
 - Testiguen froga atzera bota zuten ebazpen-proposamenean, arrazoi bakar hau adieraziz: "*considerarla innecesaria*".
 - Ebazpen-proposamenean ez zen inolako adierazpenik egin aurrez aurreko galdeketaz.
 - Aitzitik, ebazpen-proposamenean, parte hartu zuten udaltzainek egindako testiguen froga onartu zen, nahiz eta interesdunak halakorik ez eskatu testiguen froga gisa.

Hala ere, administrazio-espedientearen ez da inon idatzita agertzen froga hori egin zen ala ez, bada, udaltzainek prozeduran -hura hasi ondoren- izandako



esku-hartzei dagokienez, esku-hartze bakarra azaltzen da espedientean: berrespen-izapidea, otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak -Herritarren Segurtasuna Babestekoak- 37. artikuluan aurreikusitakoa.

Orobat, interesdunak eskatutako frogak direla-eta, administrazio-espedientean ez dugu aurkitu ebazpen-proposamenekoez bestelako adierazpenik.

6. Egintza horiek kontuan izanda, ondorio hau atera genuen, batez ere aurrerago azalduko ditugun gogoetetan oinarrituz: udalak ez zuela bere betebeharra bete, alegia, ez zuela behar bezala arrazoitu errudun jotakoak proposatu zituen frogak egiteari ezezkoa ematea, eta, hortaz, urratu egin zuela interesdunak zigor-prozeduran bere burua defendatzeko duen eskubidea. Balorazio horren arabera, gure iritziz, udalak baliorik gabe utzi behar zuen interesdunari prozedura horretan jarritako zigorra, eta, hala balegokio, atzera jo eta eskubide-urratzea gertatu aurreko unera eramane behar zituen jarduerak.
7. Udalari gure balorazioa helarazi ondoren, hark beste komunikazio bat igorri zigun, lehen bidali zigunaren berdina, mamari dagokionez.

Gogoetak

1. Konstituzio Auzitegiak sortu zenetik onartu duenez, administrazioaren zigor alorrean indarrean daude Konstituzioaren 24. artikulutik eratorritako zenbait berme, besteak beste, defendatzeko bide egokiak erabiltzeko eskubidea, artikulua bigarren atalean adierazia. Konstituzio Auzitegiaren iritzian, eskubide horren ondorioz, nahitaez arrazoitu beharra dago halako prozedura batean errudun jotako pertsonak eskatzen dituen frogak egiteari ezezkoa ematea. Beraz, Konstituzio Auzitegiaren aburuz, eskubide hori hautsi egiten da proposaturiko froga arrazoirik gabe errefusatzen bada, edo ematen den arrazoia argiro arbitrarioa edo zentzugabea bada.

Aurtengo urtarrilaren 20ko Epaian (RTC 2003\9) ederki laburtzen da gai horretaz Auzitegiak erabiltzen duen doktrina -orain azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 135, 137.4 eta 80.3 artikuluetan eta azaroaren 26ko 1.398/1993 Errege Dekretuaren 17.ean onetsia-. Epaian adierazitakoaren arabera, Konstituzioak agindutakoa -halako kasuetan arrazoiak ematea- ez da betetzen, baldin eta, testiguen froga errefusatzeko, arrazoi hau ematen bada: "*ser improcedente ya que no altera la resolución final del procedimiento, reflejando el pliego de cargos los hechos que se (...) imputan (...), siendo*



solamente éstos los que califican la supuesta infracción"; eta arrazoi hori arbitrario eta zentzugabetzat jotzen du, zalantzarik gabe. Izan ere, dioenez, modu horretan egindako ukapenak ez du inolaz ere aintzat hartzen froga egitea bidezkoa den ala ez: "carece de una mínima valoración acerca de la procedencia de la prueba, pues comporta un prejuicio negativo acerca del resultado de la prueba, pese a que ésta versaba sobre el sentido de los propios hechos enjuiciados; y, en segundo lugar, dicha respuesta vacía de contenido propio y hace inútil el expediente sancionador -que queda prefigurado por el pliego de cargos- pues (...) parte en realidad 'del erróneo principio de que el cargo determinado por el funcionario tiene una presunción 'iuris et de iure', y que al fin y a la postre no admite prueba en contrario'" (4. oinarri juridikoa).

2. Egokia iruditu zaigu Konstituzio Auzitegiak epai horretan egindako balorazioa hitzez hitz transkribatzea, bada, gure ustez, balorazio hori udalak kasu honetan emandako arrazoiari ere aplikatu dakioke (udalaren iritziz, arrazoi horrek justifikatu zuen kexa hau sortarazi zuen kasuko zigor-prozeduran interesdunak proposaturiko froga errefusatzea); izan ere, oso antzekoak iruditzen zaizkigu kasu batean eta bestean froga-proposamenak ukatzeko erabili diren arrazoiak.

Egiaz, udalak eskuratu digun informaziotik zera ondorioztatu dugu: udalak uste du errefusatu egin behar zuela eskatutako testiguen froga egitea, bada, egintzetan parte hartu zuten udaltzainen txostenaren arabera, interesduna bakarrik hasi baitzen korrika, polizia han zegoela konturatu zenean. Gainera, interesdunak jarrera oztopatzailea erakutsi zuela uste du, udaltzainek egintzez emandako bertsioa ukatu baitzuen eta testiguen froga proposatu baitzuen.

Udalak erakunde honen aurrean bere jokaera zurrizko eman dituen azalpen horiek, gure iritziz, indarrak gabe uzten dute zigor-prozeduraren edukia bera, Konstituzio Auzitegiak aztertutako kasu hartan -lehen aipatu duguna- gertatzen zen bezala. Hara zergatik: azalpen horiek egintzen erabateko froga eztabaidaezinenaren balioa ematen diote poliziaren bertsioari, eta interesdunari ez diote bere bertsioa frogatzeko aukerarik ematen -kasu hartan bezalaxe-; halaber, ez dute aintzat hartzen interesdunak leporatu dizkieten egintzak ukatzeko duen eskubidea. Are gehiago, udalak zera dio bere ukapen-erabakia erakunde honen aurrean zurrizko: proposaturiko testigua ez zela egon egintzak gertatu ziren tokian; hala ere, gure aburuz, oso zalantzarikoa da administrazio-espeditentean agertzen diren polizia-izapideek tesi hori oinarritzeko bide ematen ote duten.



3. Egia esan, otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak -Herritarren Segurtasuna Babestekoak- 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, salatzen dituzten egintzak ikusi zituzten agintaritza-agenteek emandako informazioak -aurrez berretsi ondoren, errudun jotakoak ukatzen baditu- nahikoa froga dira dagokion erabakia hartzeko. Baina, orobat, egia da, dudarik gabe, informazio horiek ezin direla izan egintzen erabateko froga; beste froga bat baino ez dira, eta interesdunaren gain uzten dute udaltzainek kontatutako egintzak bestela gertatu zirela frogatu beharra, eta errudun jotakoari ez diote eragozten bere burua defendatzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste froga batzuk proposatzea, ezta ere, noski, egintza horiek ukatzea.

Komeni da gogoratzea aipatu araua Konstituzio Auzitegiak aztertu zuela 1993ko azaroaren 18ko Epaian (RTC 1993\341). Auzitegiak onartzen du artikulua horrek agenteen informazioei ematen dien froga-garrantzia, baina, orobat, bere ustez, informazio horiek ezin zaizkio nagusitu errudun jotakoak alegatutakoari: *"no pueden llegar a prevalecer, sin más, frente a lo alegado por el expedientado o frente a cualesquiera otros medios de prueba o que se impusiera -incluso al margen de toda contraria alegación o probanza- sobre la apreciación racional que acerca de los hechos y de la culpabilidad del expedientado se hubiera formado la autoridad llamada a resolver el expediente"*; izan ere, hala gertatuko balitz, Konstituzioaren aurkakoa litzateke: *"una tal presunción iuris et de iure en orden a la certeza de lo informado por los agentes (...) sería inconstitucional"*. Eta irmoki adierazten du honako hau: *"no estamos ante una disposición que otorgue valor en todo caso a la información de los agentes ni que dispense a la Administración de aportar cuantas pruebas haya obtenido ni, en fin, que predetermine el criterio de la autoridad que deba resolver el expediente sancionador"* (11. oinarri juridikoa).

4. Garrantzitsua da udalak, errudun jotakoak eskatu zuen testigu-frogaren ukapena oinarritzeko asmoz, erakunde honi eman dizkion arrazoiak baloratzea. Hala ere, are garrantzitsuagoa da, guk uste, arrazoi horiek ez zitzaizkiola interesdunari berari jakinarazi zigor-prozeduran.

Eskuratu diguten prozedurari dagokion administrazio-espeditatearen arabera, interesdunak, udaltzainek salatutako egintzez berak zuen bertsioa egiaztatzearen, testiguen froga egin zedin eskatu zuen, baina udalak ezezkoa eman zion, azalpen bakarra emanaz: ez zuela beharrezkotzat jotzen. Eta bekalduraz ez zuen espresuki ezer adierazi -bekaldura ere interesdunak proposatu zuen, baina ez zen burutu-. Hori gogoan izan behar da.



Interesdunak proposaturiko frogak, hortaz, arrazoirik gabe errefusatu ziren. Jokaera horrekin, udalak ez zuen bete, gure iritziz, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 80.3 artikuluan (lege beraren 137.4 artikuluekin lotuta) eta abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretuak 17.2 artikuluan ezarri zuten betebeharra, Konstituzioaren jurisprudentziak exijitutakoa; eta jurisprudenzia horren eta lehen egin ditugun gogoeten arabera, udalak urratu egin zuen interesdunak zigor-prozeduran bere burua babesteko duen oinarritzko eskubidea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak - erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

31/2003 GOMENDIOA, azaroaren 10ekoa, Barakaldoko Udalari egina

Baliorik gabe utz dezala (...) zigor-prozeduran agindutako zigorra.